

## FINANTZA, AURREKONTU ETA ONDAREAREN ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA. HONEN BIDEZ, ARAU-XEDAPENEN PROPOSAMENAK EGITEN DITUZTEN SAILEI ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOARI BURUZKO JARRAIBIDEAK EZARTZEN DIRA, KONTROL EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA EGITEKO

### 1. ARAUKETA:

- Aurrekontuei buruzko foru arauaren testu bategina, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zena: 143-145 artikulua
- Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 169/2014 Foru Dekretua: 122-133 artikulua eta xedapen iragankor bakarra

### 2. KONTROL EKONOMIKOAREN MENPEKO ARAU-XEDAPENAK:

Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorraren **xedapen iragankor bakarra** aldatzen ez den bitartean, xedapen hauek kontrol ekonomikoaren menpe egongo dira:

- foru arauen aurreproiektuak
- Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretu arauemaileen proiektuak
- Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuen proiektuak
- Ahaldu Nagusiaren foru dekretuen proiektuak
- hitzarmenen proiektuak
- kudeatzeko gomendioen proiektuak eta/edo bitarteko propioei egindako enkarguak

### 3. BIDALI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Kontrol ekonomikoari buruzko txostenaren eskabidea Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuaren postontzi elektronikoaren bitartez egin behar da. Bidali beharreko dokumentazioa Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorraren 130. artikuluan zehazten da:

- arau-xedapenen kopia
- memoria bat, **sinatuta**; bertan, arau-proposamena justifikatzen duten arrazoiak bildu behar dira, identifikatu behar da proposamen hori zer talderi zuzentzen zaien, zer helburu dituen, azaldu behar da zer beste soluzio egon litekeen, eta eragin ekonomikoa, aurrekontuaren gaineko eragina nahiz eragin finantzarioa analizatzeko beste gai guztiak ere jaso behar dira
- kontrol ekonomikoari buruzko txostena egiteko egokitzat irizitako beste edozein dokumentu

### 4. EPEAK

Eskatutako dokumentazioa Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzura bidali behar dute sailek, **gutxienez, aurreikusitako data baino 15 egun baliiodun lehenago, Gobernu Kontseiluaren gaitzerrendan sartzeko (2/2017 FD)**, onar dezan.



## 5. BESTE GAI BATZUK

- Dekretuak aldatzeko dekretuen proiektuak ere kontrol ekonomikoaren menpe egongo dira, aldaketa edozein dela ere.
- Eduki ekonomikoa dutela zehaztea Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari dagokio

## 6. ERANTSI BEHARREKO MEMORIAREN GUTXIENeko EDUKIA:

- 6.1. Oro har
- 6.2. Oinarri-arauen dekretuen proiektuak eta diru-laguntzen deialdiak
- 6.3. Prezio publikoak arautzeko dekretuen proiektuak
- 6.4. Ondasun-lagapenen proposamenak
- 6.5. Egitura organikoari buruzko dekretuen proiektuak
- 6.6. LEPren hautaprobetako deialdien dekretuen proiektuak
- 6.7. Hitzarmenen proiektuak
- 6.8. Kudeatzeko gomendioen proiektuak

### 6.1. ORO HAR:

- Proiektu arauemailearen xedearen azalpen laburra
- Arau-proposamenaren arrazoiak/helburuak. Aztertutako beste aukera batzuk (egokia bada)
- Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuan ukitutako partida ekonomikoak
- Zein kolektibori zuzentzen zaion, eta eraginpeko pertsona kopuruaren (edo beste aldagai baten) zenbatespena
- Gastuen kuantifikazioa, besteak beste, langileen gastuak eta/edo gastu informatikoak
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
- Finantzazio-iturriak, hau da, beste erakunde eta administrazio publiko batzuen eta Europar Batasunaren finantziazioa jasotzea aurreikusten den, eta finantziazio hori uneko ekitaldiaren aurrekontuan sartu den. Adierazi zein aurrekontuko partidatan, zein kopurutan eta zein ekitalditan aurreikusten den finantziazioa jasotzea.
- Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.

### 6.2. OINARRI-ARAUEN DEKRETUEN PROIEKTUAK ETA DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAK

- Proiektu arauemailearen xedearen azalpen laburra
- Proiektuaren arrazoiak/helburuak. Aztertutako beste aukera batzuk (egokia bada)



- Sailaren diru-laguntzen plan estrategikoan jasotako jarduketa-lerroen artean, adierazi zer laguntza-lerroen barruan dagoen dekretuaren proiektua
- Ukitutako partida ekonomikoak
- Dekretua ezartzeak gastu gehigarriak badakartza, kuantifikatu. Zehazki, langileen gastuak eta/edo informatikakoak
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
- Finantzazio-iturriak, hau da, beste erakunde eta administrazio publiko batzuen eta Europar Batasunaren finantziakzioa jasotzea aurreikusten den, eta finantzazio hori uneko ekitaldiaren aurrekontuan sartu den. Adierazi zein aurrekontuko partidatan, zein kopurutan eta zein ekitalditan aurreikusten den finantziakzioa jasotzea.
- Dekretuak aldatzeko dekretuen proiektuak badira, egin aldaketen historiari buruzko ohar labur bat
- Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.

### **6.3. PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO DEKRETUEN PROIEKTUAK**

- Proiektu arauemailearen xedearen azalpen laburra
- Deialdiaren arrazoiak/helburuak Aztertutako beste aukera batzuk (egokia bada)
- Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuan ukitutako partida ekonomikoak
- Zein kolektibori zuzentzen zaion, eta eraginpeko pertsona kopuruaren (edo beste aldagai baten) zenbatespena
- Prezio publikoen bidez egindako diru-bilketaren kuantifikakzioa, aldaketa egin aurrekoa, eta diru-bilketaren kuantifikakzioaren zenbatespena aldaketa egin ondoren.
- Prezio publikoen zenbatekoen gaineko hobaririk dagoen adierazi, eta kuantifikatu eurotan eta pertsona kopuruan (edo beste aldagai baten)
- Gastuen kuantifikakzioa, besteak beste, langileen eta/edo informatikoen gastuak
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
- Finantzazio-iturriak, hau da, beste erakunde eta administrazio publiko batzuen eta Europar Batasunaren finantziakzioa jasotzea aurreikusten den, eta finantzazio hori uneko ekitaldiaren aurrekontuan sartu den. Adierazi zein aurrekontuko partidatan, zein kopurutan eta zein ekitalditan aurreikusten den finantziakzioa jasotzea.



- Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.

#### **6.4. ONDASUN-LAGAPENEN PROPOSAMENAK**

- Proposamenaren xedearen deskripzio laburra
- Deialdiaren arrazoiak/helburuak. Aztertutako beste aukera batzuk (egokia bada)
- Ukitutako partida ekonomikoak
- Ondasun hori BFaren ondarean sartzeak sortu dituen gastuen eta sarreren kuantifikazioa.
- Dekretua ezartzeak gastu gehigarriak badakartza, kuantifikatu. Zehazki, langileen gastuak eta/edo informatikakoak
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
- Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.

#### **6.5. EGITURA ORGANIKOARI BURUZKO DEKRETUEN PROIEKTUAK**

- Proiektu arauemailearen xedearen azalpen laburra
- Proiektuaren arrazoiak/helburuak. Aurrekoari dagokionez egin diren aldaketen deskribapena.
- Ukitutako partida ekonomikoak
- Antolaketa-egitura berrira egokitzeko egin behar diren gastuen kuantifikazioa. Zehazki, langileen gastuak eta/edo informatikakoak
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
- Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.

#### **6.6. LEPren HAUTAPROBETAKO DEIALDIEN DEKRETUEN PROIEKTUAK**

- Proiektu arauemailearen xedearen azalpen laburra
- Proiektuaren arrazoiak/helburuak.
- I. kapituluko gastuaren zenbatespena, uneko ekitaldian (kontuan harturik zein hilabetetan jabetuko den lanpostuaz) eta ondorengo 3 ekitaldietan deitutako lanpostuak betetzearen ondoriozkoa (deitutako plazen kostu osoa/plaza kopurua\*). Hala badagokio, adierazi zenbat plaza betetzen dituzten bitarteko funtzionarioek.
- Zehaztu oposizioaren deialdiari lotutako kostuak (adierazi zein partidari eta ekitaldiri egotziko zaizkion):



- epaimahaiaren dietak
  - alokairuak
  - kostu informatikoak
  - zerbitzu kudeatzaileak egokitzat jotzen dituen beste batzuk
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
  - Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.

## 6.7. HITZARMENEN PROIEKTUAK

- Proiektu arauemailearen xedearen azalpen laburra
- Arau-proposamenaren arrazoiak/helburuak. Aztertutako beste aukera batzuk (egokia bada)
- Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuan ukitutako partida ekonomikoak
- Diru-laguntzen hitzarmenei dagokienez, sailaren diru-laguntzen plan estrategikoan jasotako jarduketa-lerroen artean, adierazi zer laguntza-lerroren barruan sartuta dagoen hitzarmenaren proiektua.
- Zein kolektibori zuzentzen zaion, eta eraginpeko pertsona kopuruaren (edo beste aldagai baten) zenbatespena
- Gastuen kuantifikazioa, besteak beste, langileen gastuak eta/edo gastu informatikoak
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
- Finantzazio-iturriak, hau da, beste erakunde eta administrazio publiko batzuen eta Europar Batasunaren finantziazioa jasotzea aurreikusten den, eta finantzazio hori uneko ekitaldiaren aurrekontuan sartu den. Adierazi zein aurrekontuko partidatan, zein kopurutan eta zein ekitalditan aurreikusten den finantziazioa jasotzea.
- Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.
- Hitzarmenak izaera berekoak eta antzeko xederakoak badira, guztiak barne hartzen dituen kontrol ekonomikoari buruzko txosten bakarra egingo da. Horrela, ikuspegi orokorretik aztertzen da Aldundiaren aurrekontuetan duen eragina. Hala badagokio, txosten hori hitzarmen guztiei gehituko zaie.



#### 6.8. KUDEATZEKO GOMENDIOEN PROIEKTUAK ETA/EDO BITARTEKO PROPIOEI EGINDAKO ENKARGUAK:

- Gomendioaren xedearen deskripzio laburra
- Proposamenaren arrazoiak/helburuak. Beste aukera batzuen azterketa. Kudeatzeko gomendioaren egokitasunaren balorazioa.
- BFAko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuan ukitutako partida ekonomikoak
- Gomendia jaso duen erakundearen aurrekontuan izango duen eraginaren balorazioa
- Zein kolektibori zuzentzen zaion, eta eraginpeko pertsona kopuruaren (edo beste aldagai baten) zenbatespena
- Gastuen kuantifikazioa, besteak beste, langileen gastuak eta/edo informatikakoak
- Etorkizuneko eragina aurrekontuan, aurrekontuen egoeran. Indarraldia uneko ekitaldikoa eta horren ondorengo beste 3 ekitaldikoa izango da
- Finantzazio-iturriak, hau da, beste erakunde eta administrazio publiko batzuen eta Europar Batasunaren finantziak jasozea aurreikusten den, eta finantzazio hori uneko ekitaldiaren aurrekontuan sartu den. Adierazi zein aurrekontuko partidatan, zein kopurutan eta zein ekitalditan aurreikusten den finantziak jasozea.
- Azaldu aurrekontuan programa horretarako aurrez ikusitako helburuak, adierazleak eta ekintzak aldatzea beharrezkoa den.



Bilbon, 2018ko otsailaren 23an

AURREKONTUEN ZERBITZUKO BURUA

Sin.: Koldo Zabala Bilbao

AURREKONTUETARAKO ETA EKONOMIA  
KONTROLERAKO ZUZENDARIORDEA

Sin.: Aitor Salsidua Urruela

FINANTZA, AURREKONTU ETA ONDAREAREN ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: Aitor Cobo Presilla